

## KORONABIRUSA ATZOKO DATUAK

### GIPUZKOAN

165 positibo berri  
6.439 positibo guztira\* UCln EAEn

1.711 hildako EAEn

### NAFARROAN

111 positibo berri  
10.411 positibo guztira UCln Nafarroan

\*HERNANIN 184 (+26), ASTIGARRAGAN 38 (+2)

## 6.000 bono berri banatuko dira herriko 163 dendetan #eutsihernaniri erosketa kanpainaren bigarren olatuan

Irailaren 7tik urriaren 9ra erosi eta urriaren 30era arte erabili daitezke. Udalak eta Berriak merkatariek elkarrekin batera jarri dute martxan bigarren kanpaina hau eta oraingoan 90 mila euro bideratuko dira.

### HERNANI BONOAK

Udala eta Berriak elkarrekin elkarlanean #eutsihernaniri erosketa bono txartelen kanpainaren bigarren olatua martxan jarriko dute irailaren 7tik aurrera. Aurrekoarekin, alderatuta aldaketa txikiak daude, funtzionamendua hobetzeko.

Erosketa bonuen kanpaina aurrekoa bezala da, herriko saltokietan, ostalaritza establezimenduetan eta zerbitzuetan erabiltzeko. 50 euroko 6.000 bonu jarriko ditu Udalak herritarren eskura oraingo honetan eta 90.000 euro bideratzea suposatzen du horrek.

Kanpaina parte hartu nahi duen herritarrek 35 euro ordainduko ditu eta 50 euroko erosketa egin ahalko du. Beraz, Udalak 15 euro -bonuaren herena- hartuko du bere gain. Astelehenean hasi daitezke herritarrek bo-

noak erosten eta urriaren 9ra arte lortu daitezke. Erabilpena urriaren 30era arte luzatuko da eta 21 egun egongo dira bonoak gastatzeko erosteko azken egunetik.

Denbora badago eta jendea lehendabiziko egunean ez pirlatzea eskatu dute Berriak elkarrekin eta Udalak. Gainera, azpimarratu behar da, bonoak lortzeko Hernanin erroldatua egon behar dela. Adingabeen kasuan, NAN erakustea nahikoa izango da adierazi zutenez.

Berriak elkartetik, aurkezpenean, azpimarratu nahi izan zuten lehenengo kanpainak izan duen arrakasta. «5.500 bono saldu ziren eta horrek onura asko ekarri ditu herrian, bai merkatarietan eta herritarrengan. 360.000 euroko gastu positiboa suposatu du».

Bigarren kanpaina honetan lehenengoan baino 10 komer-



Berriak elkarrekin eta Udalak aurkeztu dute bono kanpainaren bigarren parteak.

tzio gehiagok parte-hartuko du. Orain 163 izango dira guztira.

### 700 mila euro bideratuko dira fase desberdinetan

Kanpaina honek zenbait fase ditu eta, guztira, 700.000 euro bideratuko ditu Udalak sektore horiek suspertze aldera. Ekimen horiek guztiak elkarlanean gauzatzen ari dira Udala eta Berriak Hernaniko Merkatarien eta Ostalarien Elkarteak.

Bonoak egongo dira eskuragai: Berriak elkartean eta Biteri kultur etxean. Herritar guztiek eros ditzakete: helduek zein adingabeek.

Erosketa bonuak txartelaren bidez edo banketxe-transferentziaren bidez ordain daitezke. Ez da eskudirurik onartuko.

Saltoki, taberna, jatetxe eta zerbitzuak ematen dituzten negozio guztiek har dezakete parte kanpaina, Berriak elkarteko

kideak izan ala ez. Kanpainari atxikitzen zaizkion negozioek kartel adierazgarri bat izango dute haien erakuslehoetan.

Berriak elkartean astelehenean ostegunera 09:30etatik 13:00etara lortu daitezke eta 17:00etatik 19:00etara. Ostiralean ordua 09:30etatik 13:30etara izango da eta Biteri kultur etxean egunero lortu daitezke 09:30etatik 13:30etara. Astelehenean hasiko da kanpaina. **K**

## Barrenetxeak 23-30 galdu du Endikaren aurka eta finalerdietara sailkatzea zaila du azken jardunaldian

Atzoko emaitzarekin Urriza ia finalean da eta Juanenea eta Endikak jarraitzeko nahikoa dute puntua ez galtzea beraien arteko partiduan.

### HERNANI ERREMONTEA

Pasa den urtean, txapelidun geratu zen Endika Barrenetxea Kutxabank Torneoan, baina aurten ia ezinezkoa du hurrengo fasera sailkatzea. Endika Urrutiaren aurka 23-30 galdu zuen atzo Ga-

larretan eta zero punturekin, azken jardunaldian, emaitza desberdinen zain egon behar du aukerak izateko. Juanenea eta Endikaren arteko partiduan bietako batek 16an edo tanto gutxiago geratu beharko luke eta berak Urriza gaintu bien

arteko partiduan. Bai bata eta bestea oso zailak izango dira.

Atzoko emaitzarekin gainera, Urriza finaletik ezin gertuago dago. Zortzi puntu ditu eta Juanenea eta Endikak lau dituzte. Azken jardunaldian 16an edo tanto gutxiago geratu behar du finalera zuzenean ez sartzeko. Minus batekin aldatuko lirake gauzak geratzen diren bi partiduetan.

Ezinezkoa ez da, baina bai ia

ezinezkoa Barrenetxea sailkatzea eta Urrizak lehendabiziko postuan ez amaitzea

### Barrenetxeari bere arma

onenak egin zion huts, sakeak Endikaren arteko partiduan sakea erabakiorra izan zen. Barrenetxearen indargune nagusia da, baina atzokoan Endikak asmatu zuen sakearekin eta min handia egin zion Barrenetxeari. 11 tanto egin zituen sakez eta

bi falta. Atzelari hernaniarrak lau tanto egin zituen sakez eta lau falta. Hor egon zen alde. Ez zen partidu peloteatua izan.

Errestoan ere Endika fin aritu zen eta hasieratik amaierara bitarte, nagusi izan zen markagailuan. 19-29tik 23-29ra pasa ziren eta hor aukera izan zuen hernaniarrak puntua lortzeko, baina azken sakean falta egin eta zituen aukera txikiak oraindik ere txikiago bihurtu ziren. **K**

**Funeraria VASCONGADA**  
Zure eskura  
24h-ko zerbitzua  
943 376 980  
Orkolaga, 2-4  
943 55 79 01  
HERNANI  
www.funerariavascongada.com

**Allianz**  
ASEGURUAK  
bizitza -  
latripsak -  
ibilgailuak -  
etxeak -  
komertzioak -  
enpresak -  
ardura zibila -  
finantz aseguruak -  
inbertsioak -  
agustin ezponda irizar  
agentzia  
Nagusia, 13  
Telf.: 943 55 73 26  
Faxa: 943 33 57 71

**Adarraga**  
Konfitegia  
Pasteldegia  
Urbieta Etorbidea 7  
943 55 09 10

**IKATZA**  
Kale Nagusia 32,  
ASTIGARRAGA  
943 55 49 89  
ikatzataberna20@gmail.com

**GAUR** Hego haizearekin, giro beroa. Hegoaldeko haizea bizi ibiliko da goizean eta maximoak 30 °C inguru kokatuko dira; kostaldean brisa altatuko da eguerdirako eta beroa leunduko du.  
Min.15° / Max.30°

**BIHAR** Larunbatean fronte bat iritsiko da eta laino ugari ekarriko ditu ipar isurialdera. Temperatura asko jeitsiko da eta euri tanta batzuk egin ditzazke.  
Min.16° / Max.21°



**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauzez:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



## Kultur etxeko postalak aurkezteko epea irailaren 8ra arte luzatu da

Irailaren 12an Erriberaren inaugurazio ekitaldia egingo da Kontxa Etxeberrian, ekimenekin.

### ASTIGARRAGA UDALA

Kultur etxeko inaugurazio ekitaldian parte-hartzeko postalak aurkezteko epea irailaren 8ra arte luzatu da. Egungo kultur etxea agurtzeko eta Erriberari ongietorria egiteko postala bete, telefono zenbakia idatzi eta zozketan parte hartuko da, irailaren 8a baino lehen horretarako presatutako lekuetan.

Inaugurazio egunean ekitaldi ugari egingo dira. Bisita

gidatuak oso bereziak ere bai, izan ere, kultur etxeko txoko ezberdinetan herriko hainbat artistek zuzenean beraien sormenak eskainiko dituzte. Horretaz gain, herrian eta herritarrekin grabatutako dokumental bat proiektatuko da, eta instalazio artistiko bat egongo da ikusgai.

Bizi dugun egoerak aforoak mugatzera behartzen du. Hala, goizeko bisita gidatuan 90 pertsonen izango dute parte hartze-ko aukera. Eta arratsaldekoan,

beste 90. Eta badago sarrera lortzeko aukera ederra.

Postalaren atzealdean bi go-goeta idatzi behar dira, bi marrazki egitea, edo bi sentsazio islatzea: *Agur kultur etxea* esaldiari erantzunez bat, eta *Kaixo Erribera* esaldiari bestea.

Ez da gehiegi hausnartu behar, ezta denbora gehiegi itxaron behar ere diote Udaltik. «Egin ezazue gaur bertan, oraintxe egin, eta animatu etxe-koak. Izan daitezke oroimenak, izan daitezke sentimenduak, desioak, koloreak, hitzak edota marrazkiak. Berdin du zer edo nola, guztiek balioko dute». **K**

## 29 pertsonen, positibo egoitzan

18 egoiliar eta 11 langile kutsatu dira zaharren egoitzan astelehenean.

### HERNANI KORONABIRUSA

Joan zen astelehenean, lehen kasua agertu zenetik, PCRak egin zaizkie egoitza bizi diren adineko guztiei, baita bertako langileei ere, Osakidetzarekin elkarlanean. Azken datuen arabera, 29 dira kutsatuak: 18 adineko eta 11 langile.

Foru Aldundiko eta osasun zentroko ordezkariekin bilerak izan zituzten atzo goizean udal arduradunek egoera hau nola kudeatu adosteko. Egoitzaren sektorizazioaz, konfinatuta dauden langileen ordezkapenak eta kutsatutako egoiliarren kopapenaz hitz egin dute.

Orain Foru Aldundiaren erantzunaren zain dago Udala. Horren bitartean, lanean dauden langileen ahaleginari esker, zerbitzua baldintza egokietan ematen ari zaie bertan dauden egoiliar guztiei.

### Senideen bisitak bertan behera gelditu dira

COVID-19aren zabalpena saihesteko helburuarekin, senideen bisitak eta egoiliarren irteerak bertan behera gelditu dira adinekoen egoitzan. Egoiliarrei egoeraren berri ematen ari dira bertako langileak lasaitasun mezua zabaltzeko. Horien senitartekoei ere deiak egiten ari zaizkie egoeraren jakitun izan daitezten. Era berean, pertsona hori egon den gela eta azpiegitura guztiak desinfektatuko dira, baita komun guztiak ere. **K**

### Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzeko duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

**PAKO VALERO MUÑOZ**  
Herenegun hil zen, 61 urte zituela



Emaztea: Idoia Oruezabala; seme-alabak: Oihane eta Asier, Amaia eta Iñigo; bilobak: Maddi eta Ibai; gurasoak: Juan eta Maria; ezkon gurasoak: Pako (†) eta Rosi (†); anai-arrebak: Mirari eta Armando, Jose eta Rosa, Mari Carmen eta Jose Mari; ilobak eta gainerako ahaideek.

Hernanin, 2020ko irailaren 4an

OHARRA: Gorputza Hernaniko ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da goizeko 10:30ak arte.


**PAKO VALERO MUÑOZ**  
Gure artetik joan zara denon nahigabean beti eramango zaitugu gure oroimenean.



**MIRARI ETA ARMANDO, UNAI ETA AINHOA, ANDER ETA MAIALEN, ETA MALEN**

Hernanin, 2020ko irailaren 4an


**PAKO VALERO MUÑOZ**  
Beti gogoan izango zaitugu.



**GOMEZ MUÑOZ FAMILIA**

Hernanin, 2020ko irailaren 4an

**PAKO VALERO MUÑOZ**  
Besarkada handi bat familiari.



**OIHANEREN LAGUNAK**

Hernanin, 2020ko irailaren 4an


**PAKO VALERO MUÑOZ**  
Beti egongo zara gure bihotzetan.



**Mª JOSE, MARTXELO, PATXI ETA XABIER**

Hernanin, 2020ko irailaren 4an

**PAKO VALERO MUÑOZ**  
Besarkada bat, Amaia. Hemen izango gaituzu betiko.



**AMAIAREN BETIKO LAGUNAK**

Hernanin, 2020ko irailaren 4an

**PAKO VALERO MUÑOZ**  
Ez niri agur esan gero arte baizik.



**ELUR TXORI ELKARTEA**

Hernanin, 2020ko irailaren 4an


**PAKO VALERO MUÑOZ**  
Beti bihotzean eramango zaitugu.



**ZURE KOADRILA**

Hernanin, 2020ko irailaren 4an

**PAKO VALERO MUÑOZ**  
Plazerra izan da zu ezagutzea.



**LEHENENGO OSTEGUNEKO KIDEAK**

Hernanin, 2020ko irailaren 4an

**PAKO VALERO MUÑOZ**  
Oruezabala eta Valero C.B.



**ZURE LANKIDEAK**

Hernanin, 2020ko irailaren 4an

### IRAGARKI MERKEAK

Goiz Eguzki Bilgune Sozialak fisioterapia tituluduna behar du. Informazio gehiago 670415133 telefonon.  
Gela bateko pisua alokatzen da Elizatxo auzoan. 450€. Harremanetarako: [borobil123@gmail.com](mailto:borobil123@gmail.com)  
**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)